

BARRUKO IGERILEKUA **DELA ETA OHARRA**

2010eko ekaina erdialdean Musakolako kiroldegiko eraikinaren erreforma lanak hasi ziren, tartean igerilekuaren berritze lanak. Hasierako aurreikuspena obra azaro erdialdean edo abendu hasieran amaitzea zen.

Lanak aurrera joan ahala eta proiektuan sarturiko zenbait aldaketen eraginez, obra bere osotasunean zertxobait atzeratuko zen arren, behintzat Musakolako eraikineko lanak abenduko bigarren hamabostaldirako amaituta egon zitezkeela aurreikusi zen, eta, beraz, igerilekua irekita.

Hori horrela, abenduko bigarren hamabostaldirako igerilekuko obra amaitutzat emateko azken lanak hasi zituen enpresak: igerilekuko sabai izuna aldatzea, besteak beste. Sabai izuna berritzeko lan horietan ordea aurretiaz ezagutzen ez zen arazo bat azaleratu zen. Une honetan, bai enpresa eta baita udaletxeko teknikariak ere igerilekuaren estalkiaren egituraren egoera aztertzen eta baloratzen ari dira, arazoari irtenbideak proposatzeko.

Egoera hau izanik, AUKEA-k jakitera ematen du, **estalkiaren egituraren egoeraren azterketaren ondorioak eta konponbidea ezagutu arte igerilekua itxita mantenduko dugula.**

Informazio gehiago eduki bezain laister jakitera emango dugu.

ZUZENDARITZA

AVISO SOBRE **LA PISCINA INTERIOR**

A mediados de junio del 2010 comenzaron los trabajos de reforma estructural del edificio del polideportivo Musakola. La previsión inicial era que las obras finalizaran a mediados de noviembre/comienzos de diciembre.

Según avanzaba la obra y tras la inclusión de algunas modificaciones en el proyecto, se vio que, al menos, los trabajos referentes al edificio de Musakola podrían estar finalizados para la segunda quincena de diciembre, y, por lo tanto, la piscina abierta para esa fecha.

En esa situación la empresa comenzó con los últimos trabajos para dar por finalizada la obra de la piscina: entre otros, el cambio del falso techo. No obstante, al comenzar a cambiar el falso techo, ha aflorado un problema que se desconocía con antelación. En este momento tanto la empresa como los técnicos del Ayuntamiento están examinando y valorando la situación de la cubierta de la estructura de la piscina, a fin de poder proponer alguna solución.

Ante esta situación, AUKEA informa que **hasta que se tengan las conclusiones del examen de la situación de la cubierta, la piscina interior se mantendrá cerrada.**

Se informará tan pronto dispongamos de más información.

LA DIRECCIÓN